# MERKATURAKO GARDENTASUN-INFORMAZIO BATERATUA

4/2017 EBZren 5. arauaren 2. atalean finkatutako errekerimenduekin jarraituz, kreditu-erakundeen taldeek 61. arauan jasotako informazio kualitatibo eta kuantitatibo hau argitaratuko dute, gutxienez, Espainiako negozioen urte bakoitzeko ekainaren 30era arteko datuei dagokienez: birfinantzamenduak eta berregituraketak; bezeroei emandako maileguen banaketa, jardueraren arabera; esposizioen kontzentrazioa, jardueraren eta area geografikoaren arabera; eraikuntzarako, higiezinen sustapenerako eta etxebizitza erosteko finantzaketak, eta kreditu-erakundeen taldeak zorrak ordaintzeko esleitutako edo jasotako aktiboak.

Dokumentu honen bidez, 2021eko lehen seihilekoaren itxierako datuak argitaratu ditu LABORAL Kutxa Taldeak. Halaber, 2020ko abenduaren 31ko kopuruak ere txertatu dira, alderatzeko.

## 1. Hipoteka-merkatuko jaulkitzaileen eta kontabilitate-erregistro bereziaren gaineko informazioa

Erakunde jaulkitzailearen kontabilitate-erregistro bereziko datuei buruzko informazioa ere txertatu da, hipoteka-merkatuaren alderdi jakin batzuk garatzen dituen kreditu-erakundeentzako 7/2010 Zirkularrean xedatutakoaren harira 2009ko apirilaren 24ko 716/2009 Errege Dekretuaren 21. artikuluak zehazten duen bezala, eta Espainiako Bankuaren 2011ko azaroaren 30eko 5/2011 Zirkularrak agintzen duen banakapen-mailarekin.

Era berean, eta hipoteka-merkatua eta finantza- eta hipoteka-sistemaren beste arau batzuk arautzeko 1981eko martxoaren 25eko 2/1981 Legearen alderdi jakin batzuk garatzen dituen 2009ko apirilaren 24ko 716/2009 Errege Dekretuak zehaztutakoaren arabera, Kontseilu Errektoreak adierazi du 2021eko ekainaren 30ean Entitate Nagusiak prozedura- eta politika-sorta bat daukala zehaztuta, hipoteka-merkatua arautzen duen araudia beteko dela bermatzeko, eta bere gain hartzen duela ardura hori.

Politika eta prozedura horietan, gai hauen inguruko irizpideak sartzen dira, besteak beste:

Arriskua emateko irizpideak mailegu-hartzaileen ordaintzeko gaitasunean oinarritzen dira. Gaitasun hori estimatzeko, funtsezkoak dira barne-ereduak (scoringak eta ratingak).

Hipoteka-bermea eta abal-emaileak dira onartutako arintzaile nagusiak. Hipoteka-bermean, eragiketen LTV erlazioa (arriskua eta tasazioa) balioztatzen da, bereziki.

Eredu horiek gai dira ez ordaintzeko probabilitatea estimatzeko, eta, beraz, eskabidearen lehen kreditu-kalifikazioa esleitzeko, idatzitako datuetan eta aldagai batzuen portaera historikoetan oinarrituta. Eragiketa bakoitza kalifikatzeko, arrisku-mailarik txikienetik handienera doan eskala bat erabiltzen da, eta maila horietako bakoitzaren arabera ez-ordaintzeak izateko probabilitatea esleitzen zaio.

Ereduek aldagai batzuk aztertzen dituzte: errenta- edo sarrera-maila, ondarea edo zorpetzea, ordainketetan izandako portaera, kreditu-hartzailearen atxikimendua eta alderdi pertsonalak eta arrisku-eragiketari lotutako ezaugarri jakin batzuk.

Zehazki, aldagai-mota hauek bereizten dituzte indarrean dauden ereduek: ezaugarri pertsonalak, ez-ordaintzeen historikoa, errentak edo sarrerak lortzeko ahalmena, zorpetzea, ondare garbia, entitatearekiko atxikimendua, eragiketaren ezaugarriak eta kredituaren estaldura (arintzaileak).

Gainera, prozedura batzuk daude, sartutako datuen gainean sisteman jasotako informazioa egiaztatzeko, bereziki gai hauetan: sarrerak, ondarea, hipoteka-bermea (higiezina tasatzearen bidez), finantzaketaren helburua, bezeroaren datu orokorrak eta bezeroaren portaeraren oinarriak.

Tasazioak egiten dira arrisku-eragiketak formalizatzeko hipoteka-berme moduan erabiltzen diren aktibo higiezinen balioa zehazteko, eta baldintza hauek bete behar dituzte:

- Espainiako Bankuaren Tasazio Erregistro Ofizialean erregistratutako tasazio-sozietateek egin behar dituzte.

- ECO/805/2003 Ministerio Agindua, 2003ko martxoaren 27koa, bete behar dute.

Aktibo horien balioa maiztasun aldakor batekin berrikusten da, horien bidez bermatutako eragiketaren kalifikazioa, zenbatekoa eta LTVa (aktiboaren arriskua/balioa) kontuan hartuta. Eragiketaren kalifikazioaren araberako politikak ezartzen dira, eragiketa arazotsuak (zalantzazkoak edo esleituak), normalak edo jarraipen berezikoak diren.

**a)** Eragiketa aktiboak

2021eko ekainaren 30ean eta 2020ko abenduaren 31n, 10.204.111 mila eurokoa eta 10.092.341 mila eurokoa izan da, hurrenez hurren, hipoteka-mailegu eta -kredituen zorroaren balio nominala. Horietatik, hurrenez hurren 7.686.310 eta 7.738.978 mila eurok betetzen dituzte hautagarriak izateko baldintzak (aipaturiko errege-dekretuaren 12. artikuluak zenbatekoan ezartzen dituen mugak kontuan hartu gabe).

Ondoren, Entitate Nagusiaren hipoteka-bermedun maileguen eta kredituen balio nominala aurkeztuko dugu, bai eta araudi aplikagarrian xedatutakoaren arabera hipoteka-bonu eta -zedulen jaulkipen-muga kalkulatzeko hautagarriak direnak ere:

| | Mila eurokotan | |
|---|---|---|
| | **2021-06-30** | **2020-12-31** |
| | **Balio nominala** | **Balio nominala** |
| **Maileguak guztira (a)** | **10.624.685** | **10.538.405** |
| **Jaulkitako hipoteka-partaidetzak** | **-** | **-** |
| Horietatik: aktiboan aintzatetsitako maileguak | - | - |
| **Jaulkitako hipoteka-transmisioen ziurtagiriak** | **420.574** | **446.064** |
| Horietatik: aktiboan aintzatetsitako maileguak | 420.574 | 446.064 |
| **Jasotako finantzaketak bermatzeko hipoteka-maileguak** | - | - |
| **Hipoteka-bonu eta -zedulen jaulkipena babesteko maileguak** | **10.204.111** | **10.092.341** |
| Mailegu ez-hautagarriak (b) | 2.517.801 | 2.353.363 |
| Hautagarriak izateko baldintzak betetzen dituzte, salbu eta 716/2009 EDaren 5.1 artikuluan xedatutako muga | 1.440.945 | 1.489.158 |
| Gainerako mailegu ez-hautagarriak | 1.076.856 | 864.205 |
| Mailegu hautagarriak (c) | 7.686.310 | 7.738.978 |
| Hipoteka-bonuen jaulkipenak estaltzen dituzten maileguak | - | - |
| Hipoteka-zedulen jaulkipenak estaltzeko mailegu egokiak | 7.686.310 | 7.738.978 |
| Zenbateko ez-konputagarriak (d) | 7.772 | 8.336 |
| Zenbateko konputagarriak | 7.678.538 | 7.730.642 |

(a) Entitatearen alde hipoteka bidez bermatutako maileguetan —hipoteka-partaidetzen eta hipoteka-transmisioko egiaztagirien bidez eskuratutakoak ere kontuan hartuta— erabilita eta kobratu gabe dagoen printzipala, balantzetik baja emanda egon arren eta zenbateko horrek azken *loan to value* tasazioaren zenbatekoan duen ehunekoa edozein izanik ere.

(b) Hipoteka-bermedun maileguak, hirugarrenei transferitu ez zaizkienak, jasotako finantzaketei lotuta ez daudenak eta hipoteka-bonu eta hipoteka-zedulak jaulkitzeko hautagarritzat jotzeko baldintzak betetzen ez dituztenak, 716/2009 Errege Dekretuaren 3. artikuluan zehaztutakoaren arabera.

(c) 716/2009 Errege Dekretuaren 3. artikuluaren arabera hipoteka-bonu eta -zedulak jaulkitzeko hautagarriak diren maileguak, errege-dekretu berorren 12. artikuluak ezarritako zenbatekora murriztu gabe mugak.

(d) 716/2009 Errege Dekretuaren 12. artikuluan finkatutako irizpideen arabera hipoteka-bonu eta hipoteka-zedulen jaulkipena estaltzeko konputagarri ez diren mailegu hautagarrien zenbatekoa.

Segidan, 2021eko ekainaren 30ean eta 2020ko abenduaren 31n hipoteka-mailegu eta -kredituek zenbatekoen hainbat atributuren arabera duten banakapena aurkeztuko dugu:

| | Mila eurokotan | | | |
|---|---|---|---|---|
| | 2021-06-30 | | 2020-12-31 | |
| | Hipoteka-bonu eta -zedulen jaulkipena babesten duten maileguak (a) | *Horietatik:* mailegu hautagarriak (b) | Hipoteka-bonu eta -zedulen jaulkipena babesten duten maileguak (a) | *Horietatik:* mailegu hautagarriak (b) |
| **GUZTIRA** | **10.204.111** | **7.686.310** | **10.092.340** | **7.738.977** |
| **1 ERAGIKETEN JATORRIA** | **10.204.111** | **7.686.310** | **10.092.340** | **7.738.977** |
| 1.1 Entitateak sortuak | 10.148.502 | 7.644.679 | 10.036.731 | 7.697.345 |
| 1.2 Beste erakunde batzuetatik subrogatuak | 55.609 | 41.631 | 55.609 | 41.632 |
| 1.3 Gainerakoak | - | - | - | - |
| **2 DIBISA** | **10.204.111** | **7.686.310** | **10.092.340** | **7.738.977** |
| 2.1 Euroa | 10.204.111 | 7.686.310 | 10.092.340 | 7.738.977 |
| 2.2 Gainerako dibisak | - | - | - | - |
| **3 ORDAINKETAREN EGOERA** | **10.204.111** | **7.686.310** | **10.092.340** | **7.738.977** |
| 3.1 Normala | 9.834.251 | 7.549.459 | 9.722.480 | 7.602.126 |
| 3.2 Beste egoera batzuk | 369.860 | 136.851 | 369.860 | 136.851 |
| **4 BATEZ BESTEKO HONDAR-EPEMUGA** | **10.204.111** | **7.686.310** | **10.092.340** | **7.738.977** |
| 4.1 10 urtera artekoa | 4.586.244 | 3.289.750 | 4.586.244 | 3.289.750 |
| 4.2 10 eta 20 urte artekoa | 5.617.341 | 4.396.161 | 5.505.570 | 4.448.828 |
| 4.3 20 eta 30 urte artekoa | 526 | 399 | 526 | 399 |
| 4.4 30 urtetik gorakoa | - | - | - | - |
| **5 INTERES-TASAK** | **10.204.111** | **7.686.310** | **10.092.340** | **7.738.977** |
| 5.1 Finkoa | 1.266.057 | 979.012 | 1.266.057 | 979.013 |
| 5.2 Aldakorra | - | - | - | - |
| 5.3 Mistoa | 8.938.054 | 6.707.298 | 8.826.283 | 6.759.964 |
| **6 TITULARRAK** | **10.204.111** | **7.686.310** | **10.092.340** | **7.738.977** |
| 6.1 Pertsona juridikoak eta enpresaburu indibidualak (enpresa-jarduerak) | 912.778 | 1.174 | 912.778 | 1.174 |
| *Horietatik: eraikuntza eta higiezinen sustapena* | 49.514 | - | 49.514 | - |
| 6.2 Gainerako familiak | 9.291.333 | 7.685.136 | 9.179.562 | 7.737.803 |
| **7 BERME-MOTA** | **10.204.111** | **7.686.310** | **10.092.340** | **7.738.977** |
| 7.1 Bukatutako aktiboak/eraikinak | 10.156.703 | 7.678.873 | 10.041.572 | 7.730.901 |
| 7.1.1 Etxebizitzak | 9.644.422 | 7.662.886 | 9.515.656 | 7.714.198 |
| *Horietatik: babes ofizialeko etxebizitzak* | 1.128.033 | 790.449 | 1.134.529 | 800.442 |
| 7.1.2 Bulegoak eta lokal komertzialak | 284.572 | 13.303 | 291.094 | 13.842 |
| 7.1.3 Gainerako eraikin eta eraikuntzak | 227.709 | 2.684 | 234.822 | 2.861 |
| 7.2 Eraikitze-bidean dauden eraikinak/aktiboak | 6.782 | - | 4.678 | - |
| 7.2.1 Etxebizitzak | 5.469 | - | 3.266 | - |
| *Horietatik: babes ofizialeko etxebizitzak* | - | - | - | - |
| 7.2.2 Bulegoak eta lokal komertzialak | 1.313 | - | 1.412 | - |
| 7.2.3 Gainerako eraikin eta eraikuntzak | - | - | - | - |
| 7.3 Lursailak | 40.626 | 7.437 | 46.090 | 8.076 |
| 7.3.1 Hiri-lurzoru finkatua | 22.211 | 3.869 | 25.873 | 4.149 |
| 7.3.2 Gainerako lursailak | 18.415 | 3.568 | 20.217 | 3.927 |

(a) Hirugarrenei transferitu ez zaizkien eta jasotako finantzaketei lotuta ez dauden hipoteka-bermedun maileguetan erabilita eta kobratu gabe dagoen printzipala, edozein izanik ere zenbateko horrek azken *loan to value* tasazioaren zenbatekoan duen ehunekoa.

(b) 716/2009 Errege Dekretuaren 3. artikuluaren arabera hipoteka-bonu eta -zedulak jaulkitzeko hautagarriak diren maileguak, errege-dekretu berorren 12. artikuluak ezarritako zenbatekora murriztu gabe mugak.

Errege Dekretu horren 12. artikuluan zehaztutako irizpideak aintzat hartuta, hurrenez hurren 7.678.538 mila euro eta 7.730.642 mila euro hartu ziren aintzat, 2021eko ekainaren 30ean eta 2020ko abenduaren 31n hipoteka-tituluak jaulkitzeko.

Balio nominalari eta eguneratuari dagokienez —errege-dekretu horren 23. artikuluak zehaztutakoarekin bat kalkulatzen da azken hori—, Entitate Nagusiak ez du hipoteka-bonuen jaulkipenik 2021eko ekainaren 30ean eta 2020ko abenduaren 31n, eta oraindik zorroan agertzen diren eta hipoteka-partaidetzen bidez edo hipoteka-transmisioko ziurtagirien bidez mobilizatu diren hipoteka-mailegu eta -kredituen balio nominala 420.574 eta 446.064 mila eurokoa da, hurrenez hurren, 2021eko ekainaren 30ean eta 2020ko abenduaren 31n.

Hautagarriak ez diren hipoteka-mailegu eta -kreditu guztien balio nominala 2.517.801 mila eurokoa izan da 2021eko ekainaren 30ean (2.353.363 mila eurokoa 2020ko abenduaren 31n). Horietatik, 1.076.856 eta 864.205 mila eurok (2021eko ekainaren 30ean eta 2020ko ekitaldia ixtean, hurrenez hurren) ez dituzte betetzen 716/2009 Errege Dekretuaren 5.1 artikuluan zehaztutako mugak eta, beraz, ez dira hautagarriak. Era berean, ez dituzte betetzen hautagarriei eskatzen zaizkien gainerako baldintzak (arau horren 4. artikuluan adierazitakoak, alegia).

Hauxe da, 2021eko ekainaren 30ean eta 2020ko abenduaren 31n, hipoteka-bonu eta -zedulak jaulkitzeko hipoteka-mailegu eta -kreditu hautagarrien balio nominalaren banaketa, hipoteka-merkatuaren ondoreetarako eskura dugun azken tasazioaren gaineko arriskuaren ehunekoa aintzat hartuta:

2021eko ekainaren 30ean

| | Mila eurokotan | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | **Eskura dugun azken *loan to value* tasazioaren zenbatekotik erabilitako printzipala (b)** | | | | | |
| | **2021-06-30** | | | | | |
| | **% 40koa edo txikiagoa** | **% 40koa baino hand. eta % 60koa edo txik.** | **% 60koa baino handiagoa** | **% 60koa baino hand. eta % 80koa edo txik.** | **% 80koa baino handiagoa** | **GUZTIRA** |
| **Hipoteka-bonu eta -zedulak jaulkitzeko hautagarriak diren maileguak (a)** | **2.434.849** | **2.682.874** | **6.482** | **2.562.105** | **-** | **7.686.310** |
| - Etxebizitzaren gainekoak | 2.418.168 | 2.671.988 | - | 2.562.105 | - | 7.652.261 |
| - Gainerako ondasun higiezinen gainekoak | 16.681 | 10.886 | 6.482 | - | - | 34.049 |

<u>2020ko abenduaren 31n</u>

| | Mila eurokotan | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Eskura dugun azken *loan to value* tasazioaren zenbatekotik erabilitako printzipala (b) | | | | | |
| | 2020-12-31 | | | | | |
| | **% 40koa edo txikiagoa** | **% 40koa baino hand. eta % 60koa edo txik.** | **% 60koa baino handiagoa** | **% 60koa baino hand. eta % 80koa edo txik.** | **% 80koa baino handiagoa** | **GUZTIRA** |
| **Hipoteka-bonu eta -zedulak jaulkitzeko hautagarriak diren maileguak (a)** | **2.466.496** | **2.724.293** | **7.131** | **2.541.057** | **-** | **7.738.977** |
| - Etxebizitzaren gainekoak | 2.448.987 | 2.713.342 | - | 2.541.057 | - | 7.703.386 |
| - Gainerako ondasun higiezinen gainekoak | 17.509 | 10.951 | 7.131 | - | - | 35.591 |

(a) 716/2009 Errege Dekretuaren 3. artikuluaren arabera hipoteka-bonu eta -zedulak jaulkitzeko hautagarriak diren maileguak, errege-dekretu berorren 12. artikuluak ezarritako zenbatekora murriztu gabe mugak.

(b) *Loan to value* ratioa lortzeko, eragiketa bakoitzean erabilitako printzipala bermearen azken tasazioaren zenbatekoarekin zatitzen da.

Hauek dira 2021eko lehen seihilekoan eta 2020ko ekitaldian hipoteka-bonu eta -zedula hautagarriak eta ez-hautagarriak jaulkitzea babesten duten hipoteka-mailegu eta -kredituen balio nominaleko mugimenduak:

| | Mila eurokotan | |
|---|---|---|
| | **Mailegu hautagarriak (a)** | **Mailegu ez-hautagarriak (b)** |
| **1 2020ko irekierako saldoa** | 7.553.539 | 2.429.264 |
| **2 Epealdiko bajak** | 787.748 | 710.267 |
| 2.1 Mugaeguneratutako eta eskudirutan kobratutako printzipala | 17.477 | 10.300 |
| 2.2 Ezerezte aurreratuak | 154.725 | 63.409 |
| 2.3 Beste erakunde batzuek subrogatuak | 1.386 | 137 |
| 2.4 Gainerako bajak | 614.160 | 636.421 |
| **3 Epealdiko altak** | 973.186 | 634.366 |
| 3.1 Entitateak sortuak | 966.131 | 614.959 |
| 3.2 Beste erakunde batzuetatik subrogatuak | 2.376 | 1.382 |
| 3.3. Gainerako altak | 4.679 | 18.025 |
| **4 2020ko itxierako saldoa** | 7.738.977 | 2.353.363 |
| **1 2021eko irekierako saldoa** | 7.738.977 | 2.353.363 |
| **2 Epealdiko bajak** | 526.898 | 96.823 |
| 2.1 Mugaeguneratutako eta eskudirutan kobratutako printzipala | 8.283 | 4.008 |
| 2.2 Ezerezte aurreratuak | 108.591 | 38.759 |
| 2.3 Beste erakunde batzuek subrogatuak | 409 | 181 |
| 2.4 Gainerako bajak | 409.615 | 53.875 |
| **3 Epealdiko altak** | 474.231 | 261.261 |
| 3.1 Entitateak sortuak | 472.218 | 237.890 |
| 3.2 Beste erakunde batzuetatik subrogatuak | 1.337 | 1.909 |
| 3.3. Gainerako altak | 676 | 21.462 |
| **4 2021-06-30eko itxierako saldoa** | 7.686.310 | 2.517.801 |

(a) 716/2009 Errege Dekretuaren 3. artikuluaren arabera hipoteka-bonu eta -zedulak jaulkitzeko hautagarriak diren maileguak, errege-dekretu berorren 12. artikuluak ezarritako zenbatekora murriztu gabe mugak.

(b) Hipoteka-bermedun maileguak, hirugarrenei transferitu ez zaizkienak, jasotako finantzaketei lotuta ez daudenak eta hipoteka-bonu eta hipoteka-zedulak jaulkitzeko hautagarritzat jotzeko baldintzak betetzen ez dituztenak, 716/2009 Errege Dekretuaren 3. artikuluan zehaztutakoaren arabera.

Hauek dira hipoteka-bonu eta -zedulen jaulkipena estaltzen duten hipoteka-mailegu eta -kredituen saldo erabilgarriak, 2021eko ekainaren 30ean eta 2020ko abenduaren 31n:

| | Mila eurokotan | |
|---|---|---|
| | **2021-06-30** | **2020-12-31** |
| | **Printzipal erabilgarriak (a)** | **Printzipal erabilgarriak (a)** |
| **Hipoteka-bonu eta -zedulen jaulkipena estaltzen duten hipoteka-maileguak** | **42.552** | **40.975** |
| - Hautagarriak izan daitezkeenak (b) | - | - |
| - Ez-hautagarriak | 42.552 | 40.975 |

(a) Konprometitutako zenbatekoak (muga) ken hirugarrenei transferitu ez zaizkien eta jasotako finantzaketei lotuta ez dauden hipoteka-bermedun mailegu guztietan erabilitako zenbatekoak, edozein dela ere azken *loan to value* tasazioaren zenbatekoaren gaineko arrisku osoaren ehunekoa. Saldo erabilgarriak barne hartzen ditu sustatzaileei etxebizitzak saltzen direnean soilik ematen zaizkien zenbatekoak ere.

(b) 716/2009 Errege Dekretuaren 3. artikuluaren arabera hipoteka-bonu eta -zedulak jaulkitzeko hautagarriak izan daitezkeen maileguak.

2021eko ekainaren 30ean, Entitate Nagusiak ez du jaulkipenik eginda; beraz, ez ditu zertan identifikatuta izan behar hipoteka-zedula biziak jaulkitzeko ordezkapen-aktiboak. 2020ko abenduaren 31n, % 8,08koa zen jaulkipen horiek babesteko aktibo hautagarrien gainean egindako jaulkipenen ehunekoa. Ehuneko hori askoz txikiagoa da Hipoteka Merkatua Arautzeko 1981eko martxoaren 25eko 2/1981 Legearen 16. artikuluan finkatutako % 80ko gehienekoa baino.

**b)** Eragiketa pasiboak

Segidan, 2021eko ekainaren 30ean eta 2020ko abenduaren 31n Entitate Nagusiaren hipoteka-mailegu eta -kredituen zorrotik egindako eta kolaterizatutako jaulkipenak banakatuko ditugu:

| | Mila eurokotan | | | |
|---|---|---|---|---|
| | 2021-06-30 | | 2020-12-31 | |
| **Hipoteka-tituluak** | **Balio nominala** | **Batez besteko hondar-epemuga (hilabetetan)** | **Balio nominala** | **Batez besteko hondar-epemuga (hilabetetan)** |
| **1 Jaulkitako hipoteka-bonuak** | **-** | | **-** | |
| **2 Jaulkitako hipoteka-zedulak (a)** | **-** | | **625.000** | |
| *Horietatik: pasiboan aintzatetsiak* | - | | 625.000 | |
| 2.1 Zorra adierazten duten baloreak. Eskaintza publiko bidez jaulkitakoak | - | | - | |
| 2.1.1 Urtebetera arteko hondar-epemuga | - | | - | |
| 2.1.2 Urtebetetik bi urtera arteko hondar-epemuga | - | | - | |
| 2.1.3 Bi urtetik hiru urtera arteko hondar-epemuga | - | | - | |
| 2.1.4 Hiru urtetik bost urtera arteko hondar-epemuga | - | | - | |
| 2.1.5 Bost urtetik hamar urtera arteko hondar-epemuga | - | | - | |
| 2.1.6 Hamar urtetik gorako hondar-epemuga | - | | - | |
| 2.2 Zorra adierazten duten baloreak. Gainerako jaulkipenak | - | | - | |
| 2.2.1 Urtebetera arteko hondar-epemuga | - | | - | |
| 2.2.2 Urtebetetik bi urtera arteko hondar-epemuga | - | | - | |
| 2.2.3 Bi urtetik hiru urtera arteko hondar-epemuga | - | | - | |
| 2.2.4 Hiru urtetik bost urtera arteko hondar-epemuga | - | | - | |
| 2.2.5 Bost urtetik hamar urtera arteko hondar-epemuga | - | | - | |
| 2.2.6 Hamar urtetik gorako hondar-epemuga | - | | - | |
| 2.3 Gordailuak | - | | 625.000 | |
| 2.3.1 Urtebetera arteko hondar-epemuga | - | | 625.000 | |
| 2.3.2 Urtebetetik bi urtera arteko hondar-epemuga | - | | - | |
| 2.3.3 Bi urtetik hiru urtera arteko hondar-epemuga | - | | - | |
| 2.3.4 Hiru urtetik bost urtera arteko hondar-epemuga | - | | - | |
| 2.3.5 Bost urtetik hamar urtera arteko hondar-epemuga | - | | - | |
| 2.3.6 Hamar urtetik gorako hondar-epemuga | - | | - | |
| **3 Jaulkitako hipoteka-partaidetzak (b)** | **-** | | **-** | |
| 3.1 Eskaintza publiko bidez jaulkitakoak | - | | - | |
| 3.2 Gainerako jaulkipenak | - | | - | |
| **4 Jaulkitako hipoteka-transmisioko ziurtagiriak (b)** | **420.574** | **208** | **446.064** | **216** |
| 4.1 Eskaintza publiko bidez jaulkitakoak | - | - | - | - |
| 4.2 Gainerako jaulkipenak | 420.574 | 208 | 446.064 | 216 |

(a) Hipoteka-zeduletan, Entitateak jaulkita eta amortizatu gabe daudenak ere hartzen dira barne, nahiz eta pasiboan erregistratuta ez egon (hirugarrenei saldu ez zaizkielako edo berrerosi egin direlako).

(b) Aktiboan erregistratutako (eta balantzean eutsitako) hipoteka-mailegu eta -kredituei soilik dagozkien hipoteka-partaidetzen eta hipoteka-transmisioko ziurtagirien zenbatekoa.

## 2. Eraikuntzaren eta higiezinen sustapenaren sektorearekiko esposizioari buruzko informazioa

### a) Eraikuntzaren eta higiezinen sustapenaren sektorearekiko esposizioa

Hona hemen eraikuntzara eta higiezinen sustapenera bideratutako finantzaketa eta haren estaldurak 2021eko ekainaren 30ean eta 2020ko abenduaren 31n:

| | 2021-06-30 | | |
|---|---|---|---|
| | **Liburuetako zenbateko gordina** | **Berme erreal eraginkorren gehieneko zenbateko berreskuragarri aren gaineko esposizio gordinaren soberakina** | **Balio-narriadura metatua** |
| **Eraikuntzara eta higiezinen sustapenera bideratutako finantzaketa (lurzorua barne) (Espainiako negozioak)** | **58.889** | **25.323** | **25.383** |
| Horietatik: Zalantzazkoak | 24.949 | 15.186 | 16.661 |
| **Pro-memoria:** | | | |
| Aktibo kobraezinak | 95.822 | | |

| **Pro-memoria:** | **Zenbatekoa** |
|---|---|
| - Administrazio publikoei ez beste bezeroei emandako maileguak (Espainiako negozioetan) | 13.965.577 |
| - Aktiboa guztira (negozio guztietan) | 29.635.211 |
| - Balio-narriadura eta esposizio ez-zalantzazkoetarako hornidurak (negozio guztietan) | 118.155 |

| | 2020-12-31 | | |
|---|---|---|---|
| | **Liburuetako zenbateko gordina** | **Berme erreal eraginkorren gehieneko zenbateko berreskuragarri aren gaineko esposizio gordinaren soberakina** | **Balio-narriadura metatua** |
| **Eraikuntzara eta higiezinen sustapenera bideratutako finantzaketa (lurzorua barne) (Espainiako negozioak)** | **60.869** | **27.233** | **27.864** |
| Horietatik: Zalantzazkoak | 27.958 | 17.211 | 18.914 |
| **Pro-memoria:** | 95.826 | | |
| Aktibo kobraezinak | | | |

| **Pro-memoria:** | **Zenbatekoa** |
|---|---|
| - Administrazio publikoei ez beste bezeroei emandako maileguak (Espainiako negozioetan) | 13.506.256 |
| - Aktiboa guztira (negozio guztietan) | 27.904.147 |
| - Balio-narriadura eta esposizio ez-zalantzazkoetarako hornidurak (negozio guztietan) | 122.749 |

Jarraian, 2021eko ekainaren 30ean eta 2020ko abenduaren 31n eraikuntzara, higiezinen sustapenera eta etxebizitzak eskuratzera bideratutako finantzaketaren banakapena aurkeztuko dugu:

| | Eraikuntzara eta higiezinen sustapenera bideratutako finantzaketa. Liburuetako zenbateko gordina | |
|---|---|---|
| | **2021-06-30** | **2020-12-31** |
| Higiezinen bermerik gabe | 13.054 | 13.065 |
| Higiezinen bermearekin | 45.835 | 47.804 |
| Amaitutako eraikinak eta eraikuntzak | 29.250 | 31.055 |
| Etxebizitza | 24.744 | 26.148 |
| Gainerakoak | 4.506 | 4.907 |
| Eraikinak eta eraikitze-bidean dauden bestelako eraikuntzak | 1.260 | 1.562 |
| Etxebizitza | 1.210 | 1.512 |
| Gainerakoak | 50 | 50 |
| Lurzorua | 15.325 | 15.187 |
| Hiri-lurzoru finkatua | 14.197 | 13.917 |
| Gainerako lurzorua | 1.128 | 1.270 |
| **Guztira** | **58.889** | **60.869** |

Hauxe da familiei etxebizitza erosteko emandako kredituen xehakapena, 2021eko ekainaren 30ean eta 2020ko abenduaren 31n:

| | 2021-06-30 | | 2020-12-31 | |
|---|---|---|---|---|
| | **Liburuetako zenbateko gordina** | **Horietatik: Zalantzazkoak** | **Liburuetako zenbateko gordina** | **Horietatik: Zalantzazkoak** |
| Etxebizitza eskuratzeko maileguak | 9.910.065 | 156.119 | 9.791.926 | 169.531 |
| Ondasun higiezinen hipotekarik gabe | 215.262 | 2.952 | 209.848 | 2.905 |
| Ondasun higiezinen hipotekarekin | 9.694.803 | 153.167 | 9.582.078 | 166.626 |

Hauek dira familiei etxebizitza erosteko emandako hipoteka-bermedun kredituaren banakapenak, 2021eko ekainaren 30ean eta 2020ko abenduaren 31n eskura dagoen azken tasazioaren gainean arrisku osoak duen ehunekoaren arabera:

| | Azken *loan to value* tasazioaren zenbatekoaren gaineko kontabilitate-balio gordina | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2021-06-30 | | | | | |
| | **% 40koa edo txikiagoa** | **% 40koa baino hand. eta % 60koa edo txik.** | **% 60koa baino hand. eta % 80koa edo txik.** | **% 80koa baino hand. eta % 100ekoa edo txik.** | **% 100ekoa baino handiagoa** | **Guztira** |
| Liburuetako zenbateko gordina | 2.509.010 | 2.894.559 | 2.959.336 | 599.887 | 732.011 | 9.694.803 |
| Horietatik: Zalantzazkoak | 13.869 | 21.170 | 25.642 | 24.412 | 68.074 | 153.167 |

| | Azken *loan to value* tasazioaren zenbatekoaren gaineko kontabilitate-balio gordina | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2020-12-31 | | | | | |
| | **% 40koa edo txikiagoa** | **% 40koa baino hand. eta % 60koa edo txik.** | **% 60koa baino hand. eta % 80koa edo txik.** | **% 80koa baino hand. eta % 100ekoa edo txik.** | **% 100ekoa baino handiagoa** | **Guztira** |
| Liburuetako zenbateko gordina | 2.501.067 | 2.876.405 | 2.826.406 | 595.146 | 783.054 | 9.582.078 |
| Horietatik: Zalantzazkoak | 14.214 | 21.833 | 27.996 | 26.103 | 76.480 | 166.626 |

Hona hemen zorrak ordaintzeko jasotako aktiboen xehetasuna, 2021ko ekainaren 30ean eta 2020ko abenduaren 31n:

| | 2021-06-30 | | 2020-12-31 | |
|---|---|---|---|---|
| | Liburuetako zenbateko gordina | Balio-narriadura metatua | Liburuetako zenbateko gordina | Balio-narriadura metatua |
| **Eraikuntzako eta higiezinen sustapeneko enpresetarako finantzaketetatik datozen aktibo higiezinak** | **582.760** | **414.879** | **646.180** | **454.503** |
| Amaitutako eraikinak eta eraikuntzak | 28.789 | 20.257 | 31.624 | 22.039 |
| Etxebizitza | 5.750 | 3.757 | 6.577 | 4.100 |
| Gainerakoak | 23.039 | 16.500 | 25.047 | 17.939 |
| Eraikinak eta eraikitze-bidean dauden bestelako eraikuntzak | 125.015 | 48.427 | 166.047 | 70.895 |
| Etxebizitza | 90.637 | 38.560 | 121.071 | 54.725 |
| Gainerakoak | 34.378 | 9.867 | 44.976 | 16.170 |
| Lursailak | 428.956 | 346.195 | 448.509 | 361.569 |
| Hiri-lurzoru finkatua | 180.017 | 150.918 | 190.468 | 157.996 |
| Gainerako lurzorua | 248.939 | 195.277 | 258.041 | 203.573 |
| **Familiei etxebizitza erosteko emandako hipoteka-finantzaketetatik datozen aktibo higiezinak** | **25.461** | **7.004** | **27.214** | **7.986** |
| **Zorrak ordaintzeko esleitutako edo jasotako gainerako aktibo higiezinak** | **39.340** | **17.997** | **38.956** | **17.518** |
| **Zorrak ordaintzeko esleitutako edo jasotako kapital-tresnak** | - | - | - | - |
| **Zorrak ordaintzeko esleitutako edo jasotako aktibo higiezinak dituzten erakundeen kapital-tresnak** | **-** | **-** | **-** | **-** |
| **Zorrak ordaintzeko esleitutako edo jasotako aktibo higiezinak dituzten erakundeentzako finantzaketa** | **857** | **502** | **-** | **-** |
| **Guztira** | **648.418** | **440.382** | **712.350** | **480.007** |

8/2012 Legeak xedatutakoa betez, 2021eko ekainaren 30ean eta 2020ko abenduaren 31n Entitateak aktiboak kudeatzeko hainbat sozietatetan ditu eraikuntza eta higiezinen sustapena finantzatzetik datozen aktibo higiezinak. Hau da horien xehetasuna:

| 2021-06-30 | Partaidetzaren %-a | | Partaidetzapeko erakundearen datuak | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Sozietatea | Zuzena | Zeharkakoa | Aktiboak | Ondare garbia | Zerbitzuen / salmenten sarrerak | Emaitza garbia |
| Sociedad Gestión Activos Caja Laboral SAU | % 100 | - | 7.108 | 6.465 | 522 | 244 |
| ISGA Inmuebles SA | % 100 | - | 175.008 | 147.911 | 60.931 | 6.315 |

| 2020-12-31 | Partaidetzaren %-a | | Partaidetzapeko erakundearen datuak | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Sozietatea | Zuzena | Zeharkakoa | Aktiboak | Ondare garbia | Zerbitzuen / salmenten sarrerak | Emaitza garbia |
| Sociedad Gestión Activos Caja Laboral SAU | % 100 | - | 6.935 | 6.482 | 356 | (60) |
| ISGA Inmuebles SA | % 100 | - | 197.675 | 158.776 | 45.756 | 2.729 |

2021ko ekainaren 30ean eta 2020ko abenduaren 31n, hurrenez hurren 428.844 eta 441.643 mila eurokoak dira sozietate horietako aktiboen esleipen-balioak. 2021eko ekainaren 30ean, hurrenez hurren 428.844 eta 113.972 mila eurokoak dira sozietate horien finantzaketaren saldoa eta bazkideen kapitala edo ekarpenak (441.643 eta 127.904 mila eurokoak, hurrenez hurren, 2020ko abenduaren 31n). Saldo horiek, data horretan, 336.206 eta 48.881 mila euroko balio-zuzenketa dute, hurrenez hurren (343.472 eta 63.489 mila eurokoa, hurrenez hurren, 2020ko abenduaren 31n).

### b) Birfinantzamendu-eragiketak

Entitate Nagusiak onartuta dauka arriskuak berrantolatzeko politika. Horren arabera, arriskuak kudeatzeko tresna da eragiketak berrantolatzea, eta adiskidantzako berreskurapenera zuzenduta dago. Hala, birfinantzamendu-eragiketak eta berregituratutako edo berritutako eragiketak bereizten dira. Lehenengoetan, eragiketa berri bat ematen da aurretikoa ezerezteko; bigarrenetan, berriz, irekita dagoen eragiketa baten baldintza bat edo batzuk aldatzen dira.

Politika horretan, halaber, halako eragiketak berresteko ahalmenak ezarri dira, horiek ordaindu gabeko kuotak (berankorrak) izan ala ez. Ahalmen hori Arriskuen Gestioaren Departamentuak (eta bere sekzioek) izango du beti.

2020ko ekitaldian, 3/2020 Zirkularra sartu zen indarrean, birfinantzamenduen eta berregituratzeen kontabilitate-tratamendua aldatu zuena. Birfinantzamendu- edo berregituratze-eragiketak normalekoen artean sailkatzen ez direnean, honela sailkatuko dira:

A) Zaintza bereziko normala

Zalantzazkoa eta kobraezina ez dena, baina ahuleziak dituena. Operatiboki, gainerakoak baztertu ondoren esleituko da tipologia hori: birfinantzatzeko edo berregituratzeko eragiketa geroago zerrendatuko diren tipologiaren batean sailkatzen ez bada, baina kreditu-arriskuan hazkunde nabarmena badu.

B) Zalantzazkoa, berankortasunaren ondorioz

90 egunetik gorako ez-betetzeak dituzten birfinantzatutako edo berregituratutako eragiketak.

C) Zalantzazkoa, berankortasuna ez den beste arrazoi batzuengatik

Osorik itzultzeko arrazoizko zalantzak daudenean. Egoera horren aztarnak edo adierazleak aztertuko dira.

Kreditu-arriskuagatiko galera (nahitaezko zuzkidura) zenbatespen kolektibo bidez estaliko da, salbu eta «garrantzizkotzat» jotzen direnak (3 milioi eurotik gorakoak) edota faktore ez-automatikoengatik «Zalantzazkoa, berankortasuna ez den beste arrazoi batzuengatik» multzoan sailkatu direnak. Halakoetan, banaka aztertuz erabakiko da beharrezko zuzkidura.

Banakako zenbatespena egiteko, eredutik lortutako zuzkidura-proposamena izango du arrisku-analistak esku artean, eta, azkenean, ereduaren proposamena eta eragiketaz duen ezagutza aintzat hartuta erabakiko du beharrezko zuzkidura.

FINA 9aren errekerimenduei jarraikiz; eragiketak birfinantzamendu-eragiketen, birfinantzatutako eragiketen eta berregituratutako eragiketen artean bereizteko irizpideak zehazten dituzten 2012ko irailaren 28ko 6/2012 Zirkularrak eta 2017ko azaroaren 27ko 4/2017 Zirkularrak egindako aldaketak betez, eta Entitate Nagusiak horren harira zehaztutako politikei jarraikiz, birfinantzamendu-eragiketen, birfinantzatutako eragiketen eta berregituratutako eragiketen 2021eko ekainaren 30eko eta 2020ko abenduaren 31ko xehetasunak azalduko ditugu jarraian.

<u>2021eko ekainaren 30a</u>

| | GUZTIRA | | | | | | | Horretatik: Zalantzazkoak | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Berme errealik gabe | | Berme errealarekin | | | | | Berme errealik gabe | | Berme errealarekin | | | | |
| | | | | | Kontuan har daitekeen berme errealaren gehieneko zenbatekoa | | | | | | | Kontuan har daitekeen berme errealaren gehieneko zenbatekoa | | |
| | Eragiketa-kopurua | Liburuetako zenbateko gordina | Eragiketa-kopurua | Liburuetako zenbateko gordina | Higiezinen bermea | Gainerako berme errealak | Balio-narriadura metatua | Eragiketa-kopurua | Liburuetako zenbateko gordina | Eragiketa-kopurua | Liburuetako zenbateko gordina | Higiezinen bermea | Gainerako berme errealak | Balio-narriadura metatua |
| **Kreditu-erakundeak** | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| **Administrazio publikoak** | - | - | 1 | 6.460 | 6.460 | - | (3.230) | - | - | 1 | 6.460 | 6.460 | - | (3.230) |
| **Beste finantza-sozietate batzuk eta enpresaburu indibidualak (enpresa-jarduera finantzarioa)** | 4 | 27 | 3 | 365 | 365 | - | (27) | 3 | 16 | 2 | 279 | 279 | - | (21) |
| **Finantzen alorrekoak ez diren sozietateak eta enpresaburu indibidualak (finantzen alorrekoa ez den enpresa-jarduera)** | 819 | 51.849 | 441 | 130.840 | 71.939 | 949 | (95.694) | 517 | 19.677 | 322 | 109.010 | 53.685 | 440 | (75.518) |
| *Horietatik: eraikuntzara eta higiezinen sustapenera bideratutako finantzaketa (lurzorua barne)* | *3* | *542* | *31* | *18.206* | *14.292* | - | *(11.482)* | *3* | *542* | *25* | *10.144* | *8.889* | - | *(7.139)* |
| **Gainerako familiak** | 931 | 8.634 | 1.109 | 106.343 | 93.434 | 8 | (27.861) | 412 | 4.829 | 617 | 64.238 | 55.189 | - | (23.177) |
| **GUZTIRA** | **1.754** | **60.510** | **1.554** | **244.008** | **172.198** | **957** | **(126.812)** | **932** | **24.522** | **942** | **179.987** | **115.613** | **440** | **(101.946)** |
| **INFORMAZIO GEHIGARRIA** | | | | | | | | | | | | | | |
| Saltzeko eutsitakoen artean sailkatu diren aktibo ez-korronte eta elementu-talde besterengarri moduan sailkatutako finantzaketa | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - |

## 2020ko abenduaren 31

| | GUZTIRA | | | | | | | Horretatik: Zalantzazkoak | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Berme errealik gabe | | Berme errealarekin | | | | | Berme errealik gabe | | Berme errealarekin | | | | |
| | | | | | Kontuan har daitekeen berme errealaren gehieneko zenbatekoa | | | | | | | Kontuan har daitekeen berme errealaren gehieneko zenbatekoa | | |
| | Eragiketa-kopurua | Liburuetako zenbateko gordina | Eragiketa-kopurua | Liburuetako zenbateko gordina | Higiezinen bermea | Gainerako berme errealak | Balio-narriadura metatua | Eragiketa-kopurua | Liburuetako zenbateko gordina | Eragiketa-kopurua | Liburuetako zenbateko gordina | Higiezinen bermea | Gainerako berme errealak | Balio-narriadura metatua |
| **Kreditu-erakundeak** | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| **Administrazio publikoak** | - | - | 1 | 6.460 | 6.460 | - | (3.230) | - | - | 1 | 6.460 | 6.460 | - | (3.230) |
| **Beste finantza-sozietate batzuk eta enpresaburu indibidualak (enpresa-jarduera finantzarioa)** | 4 | 29 | 3 | 380 | 380 | - | (27) | 3 | 16 | 3 | 380 | 380 | - | (20) |
| **Finantzen alorrekoak ez diren sozietateak eta enpresaburu indibidualak (finantzen alorrekoa ez den enpresa-jarduera)** | 826 | 56.094 | 471 | 137.924 | 77.186 | 603 | (103.867) | 507 | 22.221 | 343 | 114.423 | 57.066 | 463 | (81.643) |
| *Horietatik: eraikuntzara eta higiezinen sustapenera bideratutako finantzaketa (lurzorua barne)* | *3* | *602* | *38* | *21.088* | *16.883* | - | *(13.705)* | *3* | *602* | *28* | *12.255* | *10.798* | - | *(9.021)* |
| **Gainerako familiak** | 919 | 8.287 | 1.120 | 109.490 | 96.472 | - | (28.199) | 375 | 4.334 | 653 | 67.877 | 58.429 | - | (23.573) |
| **GUZTIRA** | **1.749** | **64.410** | **1.595** | **254.254** | **180.498** | **603** | **(135.323)** | **885** | **26.571** | **1.000** | **189.140** | **122.335** | **463** | **(108.466)** |
| **INFORMAZIO GEHIGARRIA** | | | | | | | | | | | | | | |
| Saltzeko eutsitakoen artean sailkatu diren aktibo ez-korronte eta elementu-talde besterengarri moduan sailkatutako finantzaketa | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - |

Ondoren, bezeroentzako kredituaren 2021eko ekainaren 30eko eta 2020ko abenduaren 31ko banaketari buruzko informazioa emango dugu, jardueraren arabera banatuta, bai eta arriskuaren pilaketari buruzkoa ere, jardueraren eta eremu geografikoaren arabera banatuta:

## 2021eko ekainaren 30a

| | | | | Berme erreala duten maileguak. Eskura dagoen azken *loan to value* tasazioaren kopuruaren gaineko liburuetako zenbatekoa | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **Guztira** | **Horietatik: higiezinen bermea** | **Horietatik: gainerako berme errealak** | **% 40koa edo txikiagoa** | **% 40koa baino hand. eta % 60koa edo txik.** | **% 60koa baino hand. eta % 80koa edo txik.** | **% 80koa baino hand. eta % 100ekoa edo txik.** | **% 100ekoa baino handiagoa** |
| Administrazio publikoak | 1.007.488 | 14.624 | - | 6.401 | 4.903 | - | - | 3.320 |
| Beste finantza-sozietate batzuk eta enpresaburu indibidualak (enpresa-jarduera finantzarioa) | 29.737 | 11.053 | 809 | 4.542 | 5.549 | 797 | 67 | 907 |
| Sozietate ez-finantzarioak eta enpresaburu indibidualak (enpresa-jarduera ez-finantzarioa) | 2.895.496 | 782.179 | 136.392 | 341.609 | 215.561 | 134.079 | 23.082 | 204.240 |
| – Eraikuntza eta higiezinen sustapena (lurzorua barne) | 33.507 | 30.742 | - | 2.413 | 5.684 | 6.221 | 1.936 | 14.488 |
| – Obra zibileko eraikuntza | 51.020 | 7.643 | 3.082 | 4.263 | 2.164 | 903 | 90 | 3.305 |
| – Gainerako helburuak | 2.810.969 | 743.794 | 133.310 | 334.933 | 207.713 | 126.955 | 21.056 | 186.447 |
| Enpresa handiak | 675.733 | 33.139 | 6.041 | 10.449 | 2.083 | 4.086 | 1.207 | 21.355 |
| ETEak eta enpresaburu indibidualak | 2.135.236 | 710.655 | 127.269 | 324.484 | 205.630 | 122.869 | 19.849 | 165.092 |
| Gainerako etxeak | 11.040.344 | 10.040.788 | 16.962 | 2.742.372 | 2.992.041 | 3.004.452 | 604.652 | 714.233 |
| – Etxebizitzak | 10.151.024 | 9.886.660 | 14.328 | 2.661.938 | 2.950.564 | 2.983.876 | 600.710 | 703.900 |
| – Kontsumoa | 413.032 | 30.588 | 659 | 20.644 | 5.947 | 2.610 | 960 | 1.086 |
| – Beste helburu batzuk | 476.288 | 123.540 | 1.975 | 59.790 | 35.530 | 17.966 | 2.982 | 9.247 |
| **GUZTIRA** | 14.973.065 | 10.848.644 | 154.163 | 3.094.924 | 3.218.054 | 3.139.328 | 627.801 | 922.700 |
| PRO-MEMORIA | | | | | | | | |
| Birfinantzamendu-eragiketak, birfinantzatuak eta berregituratuak | 177.706 | 146.501 | 676 | 29.777 | 34.445 | 21.965 | 16.010 | 44.981 |

## 2020ko abenduaren 31

| | Guztira | Horietatik: higiezinen bermea | Horietatik: gainerako berme errealak | Berme erreala duten maileguak. Eskura dagoen azken *loan to value* tasazioaren kopuruaren gaineko liburuetako zenbatekoa: % 40koa edo txikiagoa | % 40koa baino hand. eta % 60koa edo txik. | % 60koa baino hand. eta % 80koa edo txik. | % 80koa baino hand. eta % 100ekoa edo txik. | % 100ekoa baino handiagoa |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Administrazio publikoak | 890.866 | 15.509 | - | 6.089 | 5.403 | - | - | 4.017 |
| Beste finantza-sozietate batzuk eta enpresaburu indibidualak (enpresa-jarduera finantzarioa) | 29.822 | 6.478 | 69 | 2.205 | 3.330 | 775 | 69 | 169 |
| Sozietate ez-finantzarioak eta enpresaburu indibidualak (enpresa-jarduera ez-finantzarioa) | 2.701.441 | 783.327 | 10.827 | 348.669 | 217.362 | 135.420 | 25.712 | 66.991 |
| – Eraikuntza eta higiezinen sustapena (lurzorua barne) | 33.006 | 30.262 | - | 1.771 | 6.716 | 4.311 | 1.985 | 15.479 |
| – Obra zibileko eraikuntza | 50.050 | 7.080 | 13 | 3.563 | 2.556 | 786 | 67 | 121 |
| – Gainerako helburuak | 2.618.385 | 745.985 | 10.814 | 343.335 | 208.090 | 130.323 | 23.660 | 51.391 |
| Enpresa handiak | 500.969 | 35.246 | - | 12.257 | 2.518 | 4.156 | 1.242 | 15.073 |
| ETEak eta enpresaburu indibidualak | 2.117.416 | 710.739 | 10.814 | 331.078 | 205.572 | 126.167 | 22.418 | 36.318 |
| Gainerako etxeak | 10.774.994 | 9.929.009 | 17.339 | 2.741.238 | 2.971.952 | 2.871.101 | 599.428 | 762.629 |
| – Etxebizitzak | 10.030.432 | 9.771.963 | 15.118 | 2.657.545 | 2.931.688 | 2.850.119 | 596.111 | 751.618 |
| – Kontsumoa | 413.680 | 31.166 | 746 | 21.547 | 5.546 | 2.643 | 767 | 1.409 |
| – Beste helburu batzuk | 330.882 | 125.880 | 1.475 | 62.146 | 34.718 | 18.339 | 2.550 | 9.602 |
| **GUZTIRA** | 14.397.123 | 10.734.323 | 28.235 | 3.098.201 | 3.198.047 | 3.007.296 | 625.209 | 833.806 |
| PRO-MEMORIA | | | | | | | | |
| Birfinantzamendu-eragiketak, birfinantzatuak eta berregituratuak | 183.341 | 152.561 | 218 | 30.989 | 34.690 | 26.338 | 13.361 | 47.401 |

Taldearen arriskuen kontzentrazioak eta horien kontabilitate-balioak hauek izan dira, 2021eko ekainaren 30ean eta 2020ko abenduaren 31n, arriskuari dagokion geografia-sektorea eta aurkako alderdien motak kontuan hartuta:

## 2021eko ekainaren 30a

| | Guztira (liburuetako zenbatekoa) (a) | Espainia | Europar Batasuneko gainerako herrialdeak | Amerika | Munduko gainerako lurraldeak |
|---|---|---|---|---|---|
| Banku zentralak eta kreditu-erakundeak | 4.598.021 | 4.015.740 | 144.643 | 16.293 | 421.345 |
| Administrazio publikoak | 9.684.107 | 9.566.616 | 117.491 | - | - |
| – Administrazio zentrala | 8.810.624 | 8.693.133 | 117.491 | - | - |
| – Beste administrazio publiko batzuk | 873.483 | 873.483 | - | - | - |
| Beste finantza-sozietate batzuk eta enpresaburu indibidualak (enpresa-jarduera finantzarioa) | 275.333 | 175.620 | 73.044 | 1.607 | 25.062 |
| Finantzen alorrekoak ez diren sozietateak eta enpresaburu indibidualak (finantzen alorrekoa ez den enpresa-jarduera) | 3.322.357 | 3.209.176 | 68.606 | 23.814 | 20.761 |
| – Eraikuntza eta higiezinen sustapena (lurzorua barne) | 54.728 | 54.728 | - | - | - |
| – Obra zibileko eraikuntza | 117.393 | 117.324 | 69 | - | - |
| – Gainerako helburuak | 3.150.236 | 3.037.124 | 68.537 | 23.814 | 20.761 |
| Enpresa handiak | 818.959 | 711.413 | 64.075 | 22.919 | 20.552 |
| ETEak eta enpresaburu indibidualak | 2.331.277 | 2.325.711 | 4.462 | 895 | 209 |
| Gainerako etxeak | 11.049.192 | 11.031.432 | 11.423 | 2.924 | 3.413 |
| – Etxebizitzak | 10.151.024 | 10.133.843 | 11.076 | 2.710 | 3.395 |
| – Kontsumoa | 413.032 | 412.734 | 202 | 79 | 17 |
| – Beste helburu batzuk | 485.136 | 484.855 | 145 | 135 | 1 |
| **GUZTIRA** | 28.929.010 | 27.998.584 | 415.207 | 44.638 | 470.581 |

## 2020ko abenduaren 31

| | Guztira (liburuetako zenbatekoa) (a) | Espainia | Europar Batasuneko gainerako herrialdeak | Amerika | Munduko gainerako lurraldeak |
|---|---|---|---|---|---|
| Banku zentralak eta kreditu-erakundeak | 3.487.356 | 2.877.244 | 153.097 | 15.110 | 441.905 |
| Administrazio publikoak | 9.639.816 | 9.509.109 | 130.707 | - | - |
| – Administrazio zentrala | 8.836.985 | 8.706.278 | 130.707 | - | - |
| – Beste administrazio publiko batzuk | 802.831 | 802.831 | - | - | - |
| Beste finantza-sozietate batzuk eta enpresaburu indibidualak (enpresa-jarduera finantzarioa) | 188.361 | 122.702 | 41.816 | 1.135 | 22.708 |
| Finantzen alorrekoak ez diren sozietateak eta enpresaburu indibidualak (finantzen alorrekoa ez den enpresa-jarduera) | 3.100.942 | 3.002.058 | 63.365 | 22.811 | 12.708 |
| – Eraikuntza eta higiezinen sustapena (lurzorua barne) | 61.412 | 61.412 | - | - | - |
| – Obra zibileko eraikuntza | 112.861 | 112.861 | - | - | - |
| – Gainerako helburuak | 2.926.669 | 2.827.785 | 63.365 | 22.811 | 12.708 |
| Enpresa handiak | 618.283 | 524.730 | 59.571 | 21.867 | 12.115 |
| ETEak eta enpresaburu indibidualak | 2.308.386 | 2.303.055 | 3.794 | 944 | 593 |
| Gainerako etxeak | 10.783.505 | 10.765.620 | 11.592 | 2.986 | 3.307 |
| – Etxebizitzak | 10.030.432 | 10.013.186 | 11.209 | 2.764 | 3.273 |
| – Kontsumoa | 413.680 | 413.333 | 232 | 82 | 33 |
| – Beste helburu batzuk | 339.393 | 339.101 | 151 | 140 | 1 |
| **GUZTIRA** | 27.199.980 | 26.276.733 | 400.577 | 42.042 | 480.628 |

(a) Esposizioen definizioak bere baitan hartzen ditu maileguak eta aurrerakinak; zorra adierazten duten baloreak; ondare-tresnak; deribatuak (negoziatzeko eutsitakoak eta estaldurakoak); baterako negozioetan eta elkartuetan egindako inbertsioak, eta emandako bermeak, balantzean edozein partidatan sartuta daudela ere.

Mailegu-hartzaileen, balore-jaulkitzeen eta deribatuen eta emandako bermeen kontrako alderdiak zer herrialdetan edo autonomia-erkidegotan dauden kontuan hartuta banatuko da jarduera eremu geografikoetan.